

Erreferentzia: "Jendaurreko informazioa. Espedientea: 20-GE-Y-2021-00017".

Proiektua: TREKUTZ Zentral Eolikoa, 10 MW-eko parke eolikoa. Honako hauek ditu: 2 aerosorgailu, 5 MW-ko potentzia unitarioa dutenak eta aerosorgailuen arteko interkonexio-azpiegitura elektrikoa, 30 kV-koa, Antzuolako eta Urretxuko udalerrietan.

Eskatzailea: Cilda Energy SLU.

Industria Administrazioaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzari
(Easo kalea 10,20006 Donostia)

_____, // _____ jaiotze data duena,
----- NAN zenbakiduna eta jakinarazpenetarako helbidea
_____, _____ udalerrian duena, herrialdea _____ eta
PK _____, erakunde honen aurrean,

ADIERAZTEN DU:

2023eko abenduaren 15ean EHAAn argitaratu da Ekonomiaren garapen, jasagarritasun eta ingurumen sailaren iragarkia, zeinaren bidez jendaurrean jartzen da "TREKUTZ" 10 MW-ko zentral eolikoaren proiektuaren informazio-azterlana, 30 eguneko epea irekiz jendaurreko informaziorako eta alegazioetarako. Idazki honen bidez, honako hauek egiten ditut, garaiz eta behar bezala:

ALEGAZIOAK:

1) Aldaketa klimatikoa eragin duen erregai fosilen CO2 emisioak murrizteko, derrigorrezkoa da Trantsizio Energetikorako plangintza integral bat garatzea 2030, 2040 eta 2050era begira. EAE ez dugu horrelako plangintzarik.

EAEko politika publikoetan ez dago energia kontsumoa nabarmen murriztera bideratutako inongo arau edo lege zorrotzik. Erakundeek, herritarrekin batera, lehenengo kontsumo murrizketa ziurtatu behar dute; ondoren, autokontsumorako azpiegiturak garatu behar dituzte; eta azkenik, behar izatekotan, beste era bateko zentral berriztagarrien plan ordenatu eta adostua garatu. Kontuan izanda, erregai fosilen kontsumoa dela energia kontsumoaren zatirik handiena, ezinbestean sustatu behar dira baldintza egokienak erregai fosilen erabilera bukatzeko eta energia berriztagarriena garatzeko.

2) Proiektuak Meaka-Irimo mendiaren industrializazioa eta ingurumen-inpaktu handia eragingo luke:

- **Mendi gailurrean 200 metro altuerako aerosorgailuak jartzeko azpiegitura-lan gogorak egin behar dira:**

Kontuan izan behar da zapata bakoitzak 500 m² dituela eta 1.600 m³ hormigoia eta 72 tona altzairu daramatzala. Guztira, 9,847 kilometro bide eraiki eta 533 hormigoizko kamioi eta 576 tona altzairu isuri nahi dituzte.

-Irimoko mendi gailurreko aldapak pikoak eta pendiz handikoak dira, eta horrek lur-mugimendu eta indusketa-lan handiak egitea dakar: 7 metro zabaleko sarbideak eraikitzeko, aerosorgailu bakoitzeko 1.400 m²-ko muntaketa-plataformen lur-berdinketak egiteko, aerosorgailuen 20 metro diametroko eta 4 metro sakoneko zimenduak egiteko, nahiz lurpeko eta aireko ebakuazio-lineak eta gainerako instalazioak egiteko. Gainera, lurra trinkotu egiten da eta higadura handia gertatzen da, batez beste 12 metroko zabalerako afekzio-eremua duten pistak eraikitzen baitira (pista + arekak + lur-erazketak), dorreak (115metro) eta palak (83,33 metro) eramateko. Guztira, eta goi-tentsioko linea berriaren okupazioa kontuan hartu gabe, zentral eolikoak 23,59 hektareako azalera izango luke: bideak, plataformak, zimenduak, zangak eta azpiestazio elektrikoa.

- **Ingurumen-inpaktuaren azterketak berak aitortzen duenez, oso eragin larria izango luke faunan,** eta, ondorioz, fauna lekualdatu egingo litzateke. Gainera, milaka hegazti eta kiroptero hilko lirateke talken ondorioz. Horietako batzuk desagertzeko arriskuan daude, hala nola miru gorria, arrano beltza, zatabai eta beste espezie zaurgarri batzuk ere. Aipagarria da Meaka-Irimo inguruan dauden saguzarren interes bereziko baso eta haitzuloetako bizilekuei eragin lieken kaltea.

- **Floraren gaineko inpaktua handia izango litzateke** eta pagadi, haginei, elorri zuriei, txilardiei, belardiei, larre mesofiloiei, eta abarrei eragingo lieke. Kontuan hartu behar dugu koniferen landaketak direla eta, bertako espezie hartzten duten garrantzia, bioaniztasunari ere erreparatuz gero.

- **Ur masan eta akuiferoetan ere eragin larria izango luke** obraren osotasunak, bai eraikuntzan, bai funtzionamenduan, kontuan hartzekoak mendilerroko eta Trekutzeko iturburuek jasan lezaketan kalte atzerazinak.

- **Paisaiaren inpaktua oso larria izango litzateke.** Meaka eta Irimo 200 metroko aerosorgailuak jartzeak eragingo lukeen inpaktu bisuala nabarmendu behar da. Irimok eskeintzen duen bista panoramikoa bereziki zabala eta kasik Gipuzkoa osora zabaltzen da, eta ondorioz, distantzia handietatik instalazioen ikuspena bera ere areagotzen da.

- **Irimoko mendialdeak gure eskualdeko mendizaletasunean eta inguruko herrietako aisialdiko jardueretan duen garrantzia ez da aintzat hartu proiektuan.** Naturan sortuko lukeen kalteaz gain, eragin zuzena izango luke inguruko aisialdiko jardueretan, mendi-ibilaldietan edo landa-turismoan. Herritarrek mendialde honi dioten estimuaren lekuko dira, besteak beste, Irimoren gailurretik hurbil Urretxuko Udalak eraikitako mendi-aterpea eta terraza panoramikoa, Gorla aldeko aterpeak, eta abar.

3) Poiektuak talka egiten du erabat Gipuzkoako 2050 Energia Jangarritasun Estrategiarekin:

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2021 urtean onartutako estrategia horrek **energia berriztagarriak tokiko autokontsumorako sorkuntza sakabanatuaren eta deszentralizatuaren bidez garatzea aurreikusten du. Gipuzkoan aerosorgailu handietan oinarritutako instalazio gehiago eraikitzea espresuki baztertzeko** (gure lurraldeko baldintza orografikoetara egokitzen ez direlako) eta energia berriztagarrien hedapena eskala **lokaleko ekintzetara bideraturiko eredu** baten bidez bultzatzearen alde egiten du.

Hortaz, Gipuzkoako **estrategia hori bete dadila eta Meaka-Irimoko proiektuan aurreikusten diren instalazio eoliko handiak eta negozio eredu baztertu.**

4) Meaka-Irimoko proiektu eolikoa martxan jarriko balitz, inguruan dauden baserriak galtzeko bidean jarriko lituzke:

Izan ere, **Urretxu aldeko Santa Barbara auzoko hainbat** baserri zentral eolikotik distantzia gutxira egongo liriteke eta halako instalazioetatik gertu dauden etxaldean debaluazio ekonomikoa ohiko gertaera izaten ari da. **Antzuolako Basalde eta Irimogoena auzoko baserriak ere –Pikunieta, Bazterriña baserriak eta Ursalto–** kaltetuak liriteke. Ondorioz, egun jarduera ekonomikoa duten baserriek –Agerrea eta Pikunieta, besteak beste– kolokan ikusiko lukete bere etorkizuna, eta lehen sektorearen egoera larria areagotuko luke. Landa auzoen eta **sakabanatutako** etxaldean ingurumenaren balio naturala zaintzea eta kontserbatzea komunitate horien biziraupenerako baldintza bat da.

5) Meaka-Irimo mendi ingurua Natura-gune Babestuen Natura baliabideak Antolatzeke Proposamenaren barnean dago eta berriazko babes-figura jasotzera bideratutako eremua izan daiteke.

Meaka-Irimo mendialdea "goi-mailako ingurumen-sentikortasuneko" eremutat eta instalazio eolikoak ezartzeko "gaitasun-txikiko" eremutat jotzen da egun izapidetzen ari den Euskadiko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan **Sektorialean**. Guztiz ulergaitza eta salagarria da aitorten hori zentral eoliko bat bertan eraikitzeke eragozpenik ez izatea.

Orain arte ere, Antzuolan nabarmenak izan dira azken urteotan gizarteari, ekonomiari ingurumenari, klimari eta paisaiari kalte larriak eta atzeraezinak eragiten dizkieten azpiegitura haundien ondorioak (AHT, Beasain - Durango autobidea, Itsaso-Gueñes goi tensioko linea eta Lizargatetik -lakiolarako gasbidea).

6) Mendiak, industrializazioaren ondorioz, bere zentzu natural, kultural eta paisajistiko osoa galtzen du:

Horrek garrantzitsu galdetzerak: **zerk dakar "onura publiko" handiagoa, 10MWko zentral eoliko batek edo Antzuolan eta Urretxu-Zumarragan, gaur egun, eta historian zehar, Meaka-Irimo mendiek izan duten garrantzia?**

Mendiak eta gaur egun, neurri handi batean, **erabilera publikoa duten herri-lur hauek, "de facto" pribatizatutako liriteke** Energia oligopolioaren etekin ekonomikoen mesedetan.

Zentralak sortuko lituzkeen lanpostuek ez liokete ekarpen ekonomikoa esanguratsurik egingo eskualdeari. Kalte orokorra, ordea, handia litzateke Antzuolan eta Urretxun.

7) Meaka-Irimoko proiektu eolikoak ez du inongo justifikaziorik trantsizio energetiko justu eta zuzen baten ikuspegitik:

Baina bere ondorioz, Meaka-Irimoko zentral eolikoaren proiektuak gure lurraldeak bizi duen narriadura larria areagotu baino ez du egingo. Natur gune hauek ez liriteke haize-errota erraldoiez suntsituko, ordea, Euskadin politika publikoak kontsumo energetikoa murriztera eta energia berriztagarrien hedapena modu arrazoizkoago batean eta eskala lokaleko ekintzen bidez bultzatzera bideratuko balira.

Beraz, soberan ditugu lurraldea erasotzen duten oligopolio energetikoen eta inbertsio-funtsen komenentziarako makro-proiektuak.

Azaldutako guztiagatik, **honako hau ESKATZEN DUT:**

Agiri hau aurkeztu ondoren, onartu, eta, horren arabera, aurkeztutako jo ditzala aurreko alegazioak, izapide egokiak egin ondoren, **proiektuaren informazio-azterlana onar ez dezan, interes orokorrekoak jo ez dezan eta ingurumen-inpaktuaren adierazpen negatiboa egin dezan.**

_____ (e) n, 2023ko _____aren _____ (e) (a) n

Sinadura: _____

